

Jolasteko garaia da

Euskarazko jolasen bilduma egin ostean, *Euskal jolasez blai* ekimena jarri du abian Gipuzkoako Urtxintxa eskolak

GIPUZKOAKO URTXINTXA ESKOLAK *Euskal jolasez blai* egitasmoa aurkeztu du, haur, irakasle, hezitzaile eta gurasoei bideratua. Euskal Herriko euskarazko jolasak bildu eta eskoletan-eta erabiltzeko egokitu dituzte. Lanaren lehen emaitzak agerian paratu dituzte dagoeneko.

Gipuzkoako Urtxintxa eskolak hamar urte darama aisialdirako hezitzaileak prestatzen, eta denbora horretan ekimen ugari egin du. Orain lau urte lau ikastetxek deitu zuten jolasen inguruan formazio eskean. Eskari horretatik gaiaz arduratzen hasi ziren. Udalekuetan ere ikusi zuten behar hori Urtxintxako kideek. «Haurrek ez zekitela jolasten ikusi genuen. Udalekuetan zertan jolastu nahi zuten galdetzerakoan, jolasik ez zekitela ohartu ginen», esan digu Atzio Orejak, Urtxintxa eskolako kideak eta programaren arduradunetako batek. Beharra, beraz, kanpotik eta barrenetik atzeman zuten. «Aisialdiaren heziketak adi egon behar du gizartean izaten diren aldaketak atzemateko, eta horietara egokitzen jakin behar dute aisialdiko erakundeek».

Josteta bera dago krisian, eta haurrek jolas egiten dutenean erdaraz egin ohi dute. Egitasmoa, beraz, bi arazo horientzako sendabide izatea nahi dute. «Jolasaren krisia arazo estrukturalagoa da, azken finean, gizartearen baitan gertatzen ari diren aldaketak daude sakonean. Horretarako aldagai berri bat sartu nahi dugu haurren jolasetan: euskalduna eta euskaraz», gehitu du Orejak.

Gizartean izandako aldaketek eragin dute haurrek jolasak ez ezagutzea. «Nonbait eta noizbait etendako kate hori berreskuratu nahi dugu, prestijioa eman nahi diogu, eta haurrak ohar daitezela euskaraz ere jolas daitezkeela, eta ondo pasatu», adierazi du Atzio Orejak. Lan horretan soziolinguistikan

EDURNE KOCH



Atzio Oreja,
Urtxintxako kidea.

dabilen jendearekin ari dira elkarlanean, ezagutza, motibazioa, erabilera zirkuitu horretan eragiteko. Irakaskuntzan, adibidez, ereduaren arabera, jolasa euskararako motibazio bilaka daiteke, edota euskara ikasteko bidea. «Euskararen normalizazioak euskara gizartearen esparru guztietan egotea esan nahi du. Aisialdian ere egon behar du, eta hortik dator duen garrantzia. Haurrak euskarazko jolasak ezagutzen baditu, euskaraz jolasteko aukera handiagoak izango ditu, eta euskaraz jolastuz gero, errazago egingo du euskaraz gainerako esparruetan, eta euskara bere hizkuntza arrunta bilakatu», azaldu du Urtxintxako kideak.

Badira, hala ere, jolasaren etena eragin duten makina bat arrazoi. Garai batean haurrek kalean egiten zuten jolasean. Egun, aldiz, etxean jostailu pila bat dute eta etxeak

ez du garai batean zuen erranahi bera. Gurasoei ere ez dute lehenago zuten harremana, batez ere amak lanean hasi direlako, eta aitona-amonekin duten harremana ere gutituz doa; lehen etxe berean hiru belaunaldi bizi ziren, baina egun goitik behera aldatu da hori. «Baina euskarak badu beste berezitasun bat: gurasoetako asko euskaldun berriak dira, eta horiek ez dituzte jolasak eta kantutak euskaraz jaso», nabarmendu du Atzio Orejak. Haurrek ere denbora presio izugarria dute. «Makina bat ekintza egiten dituzte aste barruan, eta horrek jolasteko denbora kentzen du; eta denborarik ez duteenez, ez dituzte jolasak ezagutzen; eta ezagutzen ez dituztenez, ez dira horietan jolasten... Bukaerarik gabeko kontua da».

Egoera ikusita, gurasoak, hezitzaileak, irakasleak eta haurrak eurak ere hezi beharra dagoela ikusi zuten Urtxintxako kideek. Baina haiei zerbait eskaintzeko, lehenik bilketa lana egin zuten. Ordura arte egina zegoen lanari heldu zioten lehenik; argitaratutako materialari, alegia. Hala, Oskorriren diskoetara, Hik Hasi-k argitaratutako materialera, Etnikerren bildumetara eta liburu orokorretara jo zuten. «Gure inguruko herrietan, gunee euskaldunetan, inor ohartu gabe, grabaketak egiten ibili ginen. Begiraleak plazetara joaten ziren, haurrak jolasean harrapatzen zituzten, eta bertan ikusitakoa-

